

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du; bigarren eta hirugarren ariketetan 0,8 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzentzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

EUSKARAZKO AZPITITULUAK, MUNDUA IKUSTEKO BETAURREKO

Azken inkesta soziolinguistikoak agerian utzi du aspalditik askoren **1** zena. Erabilera eta ezagutza formalean euskarak gora egin badu ere, kale-erabilerak atzerako **2** hasi omen du. Egia esan, ez zait batere harritzekoa iruditzen, gure hizkuntzak eskolatik kanpo dituen gabeziak zein diren ikusita. Etxeko gozotasuna kenduta, eskola da leku askotan geratzen den edo egon izan den arnagune bakarrenetarikoa. Haur zein heldu, eskolatik eta etxetik atera bezain pronto ohartzen dira aisialdia eta lana ia erabat erdaldunak direla.

Gainera, garaiak ere asko aldatu dira. Aspaldian euskararen arnagune ziren herri euskaldunetan, asko aldatu zaigu egoera politikoa eta, oro har, bizimodua. Gure arteko harreman-bideak erabat desberdinak dira. Aspaldi entzun nion bati pantailen gizartean bizi garela. Mugikorrek erabat **3** dauden aro honetan, esango nuke ikus-entzunezkoen gizarte batean bizi garela eta berebiziko garrantzia dutela, batez ere, gazteengan. Pantaila horietan agertzen diren eduki gehienak zinemako filmak, telebistako telesailak edo Interneten sareratzen diren bideoak dira, erdarazkoak, eta horiexek osatzen dute gure **4** zati handi bat.

Hutsune hori betetzeko, badago bikoizketa **5** duenik. Hori, ordea, oso zaila ikusten dut, uste baitut zineman eta telebistan sortzen den material andana bikoizteko komunitate txikiak garela. Alternatiba, **6**, azpigituluak izan daitezke, bikoizketa izanik haren osagarri, batez ere, txikienei eskaini beharreko euskarazko edukiak **7**. Hizkuntza normalizatua duten Europako beste herrialde txikiei begiratzen badiegu, ohartuko gara gehienek azpigituluak erabiltzen dituztela. Arrazoi nagusia ekonomikoa da, noski; Urtzi Urrutikoetxeak esan izan du 100.000 euroko **8** bizpahiru film bikoiztu ahal izango genituzkeela eta, **9**, 25 edo gehiago azpidatzi. Azpigituluek, gainera, malgutasun eta azkartasun handia eskainiko ligukete. Film edo telesailak argitara atera bezain laster euskarazko ikuspegi batekin erakusteko moduan izango baikineteke.

Horrez gain, azpidatzen **10** ondo zabalduz gero, talde txikiek edo norbanakoek oso erraz euskaratuko lukete edozein film beren kabuz. Adibidez, *azpigituluak.com* webgunean horretan ari dira lanean, eta euskaratutako 500 film luze izatera iritsi dira (telesailak, laburrak eta erdimetraiak aparte). Gainerakoan, bikoizketa itxaron beharko litzateke edo **11** gaztelaniaren zubia erabili. Hirugarren hizkuntza bat ikasten ari direnek badakite film original bat ikustean, hizkuntza horretara belarria egiteko aukera dagoela. Esperientzia hori probatu ondoren, oso zaila egiten da gaztelaniaz entzutea, **12**, Miami ingeles «kutsatua» duen baten eta Kubatik joandako etorkin baten arteko elkarrizketa. Mundua dagokion hizkuntzan ikusi beharko genuke, euskarazko azpigituluaren zubia erabilia, noski. Izan ere, etxeko produkzioa euskaraz, baina kanpoko guztia gaztelaniaren filtertik igarota iristen zaigu. Mundua gaztelaniaz ikusten dugu, eta **13** dugu euskara bazterreko edo etxeko hizkuntza dela. Bide horretan, azpidatziara ohituta dagoenak gaztelaniari eskaintzen dion denbora murriztu eta euskarari emango lioke.

Bestalde, iruditzen zait azpigituluena hautu oso **14** dela Administrazio publikoak eta erakundeek euskarari zentralitatea emateko. Azkenaldian, sarean ikusten ditudan bideo askotan gertatzen ari den praktika bat da edukia euskaraz ematea, baina hainbat hizkuntzatan azpigitulatuta. Hau da, eduki bera bi hizkuntzatan editatu edo bikoiztu beharrean, euskara hutsean sortzea eta nahi adina azpigitulurekin argitaratzea. Horrek ere bi **15** nabarmen ditu: alde batetik, euskarari zentralitatea, ikusgarritasuna, hegemonia, eta abar ematen dizkio, eta bestetik, merkeagoa da. Baina aisialdian benetako **16** egin nahi bada, kuotak jarri beharko dira, zineman, telebistan eta orokorrean aisialdia eskaintzen duten lekuetan; hau da, *diskriminazio positiboa* deritzona erabili beharko da antolatzen diren ekimen eta jaialdiei **17** ematerakoan. Kontuan izan behar dugu, euskara ez dela euskaradunon **18** soilik, eta munduan lekutxo bat izan nahi badu, gure lurralde honetako erdarek utzi beharko diotela lekua.

ODRIOZOLA, Urtzi. Administrazioa euskaraz, 2014ko uztaila. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

1. a) nahia
 b) mehatxua
 c) kezka
 d) irrika

2. a) joera
 b) eremua
 c) jarrera
 d) adiera

3. a) metatuta
 b) zaharkituta
 c) gutxietsita
 d) hedatuta

4. a) garapenaren
 b) aisialdiaren
 c) ahozkotasanaren
 d) isolamenduaren

5. a) gaitzesten
 b) lehenesten
 c) debekatzen
 d) egiaztatzen

6. a) oraindik
 b) izan ere
 c) hala ere
 d) beraz

7. a) banatzeko
 b) bermatzeko
 c) kudeatzeko
 d) ustiatzeko

8. a) eskakizunarekin
 b) etekinarekin
 c) aurrezkiarekin
 d) aurrekontuarekin

9. a) horrez gain
 b) aldiz
 c) batez ere
 d) halaber

10. a) sorrera
 b) emanaldia
 c) ohitura
 d) norabidea

11. a) bide batez
 b) parean
 c) ganoraz
 d) zuzenean

12. a) batik bat
 b) esaterako
 c) hots
 d) hurrenez hurren

13. a) urratuta
 b) arakatuta
 c) barneratuta
 d) sakonduta

14. a) antzua
 b) zakarra
 c) sinesgarria
 d) eraginkorra

15. a) abantaila
 b) ikuspuntu
 c) ezaugarri
 d) eragozpen

16. a) salaketa
 b) ariketa
 c) aldaketa
 d) eragiketa

17. a) diru-laguntzak
 b) ordainagiriak
 c) egitarauak
 d) ezustekoak

18. a) irizpidea
 b) ahalmena
 c) ardura
 d) fidagarritasuna

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ARARTEKOA, POBREZIA ERAUZTEKO NAZIOARTEKO EGUNEAN

Urriaren 17a, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) hala erabakita, pobrezia erazteko eguna da. Aurtengo goiburua hauxe da: «Inor atzean ez uztea: elkarrekin pobrezia aurka pentsatu, erabaki eta jardutea». Arartekoa, Eusko Legebiltzarraren giza eskubideen aldeko goi-komisarioa, NBEk finkatutako helburuari lotu zaio eta euskal herritarrekin hausnarketok partekatu nahi ditu:

Euskadin familia batzuk pobrezia-egoeran bizi dira eta familia horietako asko gizarte-bazterketako arriskuan daude. Zorionez, EAEk gizarte-babeseko sare bat dauka eta dauden premia guztiak betetzen ez dituen arren, Europako batez bestekoaren azpitik dago pobrezia hemen. Aipatutako gizarte-babeseko sarearen tresnarik garrantzitsuena Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) da. Izaera ekonomikoko prestazio horrek 25 urte bete ditu, eta, jasaten ari garen krisi sozioekonomiko larria gogor piztu zen arte, adostasun politikoa eta soziala zegoen; horri esker, prestazio horren kudeaketan ez zegoen gatazkarik.

Pobrezia lotuta «Inor atzean ez uztea» goiburuak hauxe esan nahi du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak jarraitu egin behar du eta pobrezia-egoeran edo pobrezia-arriskuan dauden guztien premiak bete behar ditu, salbuespenik gabe. Araupetu gabeko administrazio-egoera batean daudenak ez dira gizarte-babeseko saretik kanpo geratu behar, hezkuntzatik edo osasun-zerbitzuetatik kanpo utzi behar ez diren bezala. Gure gizarte-elkarbizitzak eta gure demokrazia-ereduak oinarri dituzten gizarteratzerako eta gizarte-justiziarako oinarriko eskubideen aurkako eraso larria litzateke. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren esparru subjektiboa erreformatzen bada, zabaltzeko egin beharko litzateke, gaur egun barne hartzen ez dituen eta gobernu kanpoko erakundeen (GKE) laguntzari esker irauten duten familia behartsuak ere babes ditzan.

Iruzurraren kontrako borroka ez da ordenamendu juridikoan onartuta dauden eskubideak mugatzeko edo kentzeko aitzakia izan behar. Izaera ekonomikoko prestazio guztietan daude iruzur-kasuak, baita ogasunarekin zerga-eginbeharrak sortzen diren eremu guztietan ere. Datu objektiboek adierazten dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan dagoen iruzur-maila oso baxua dela, eta, adibidez, iruzur fiskalari lotutakoa baino txikiagoa dela. Baina botere eta administrazio publiko guztiek mota orotako iruzurraren aurka eraginkortasunez borrokatzeko betebeharra daukate; horretarako, kontrol- eta ikuskapen-mekanismoak hobetu behar dituzte, eskubiderik kendu gabe.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kudeatzen duen administrazioa, Lanbide, bereziki arduratsua izan beharko litzateke bere eginkizunak gauzatzean. Hala, prestaziorako eskubidea aitortzeko, eteteko, iraungitzeko edo bidegabeki jasotako kopuruak erreklamatzeko prozedura administratiboak prozedura bermatzaileak izan daitezten eta administrazio egokiaren eskubideari erabat erantzun diezaioten jardun behar du. Horrez gain, etengabe saihestu behar du interesdunei edo herritarrei eskuarki helarazten zaien informazioak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa eraginkorrari buruzko nahasmendua edo ulertzeko modu okerrak sortzea.

«Elkarrekin pobrezia aurka pentsatu, erabaki eta jardutea» dio NBEren aurtengo goiburuaren bigarren zatiak. Horrek esan nahi du botere publiko guztiek pobrezia eta gizarte-bazterketa erazteko konprometituta egon behar dutela. Halaber, esan nahi du elkarrekin pentsatu, erabaki eta jardun behar dutela; hau da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta babestu duten adostasun politiko eta sozialak indartzeko lan egin behar dutela.

<ararteko.net>. 2014ko urriaren 17a. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- 19. Zer esaldik azaltzen du ondoen adierazpen ofizialaren ideia nagusia?**
- a) Arartekoa ados dago NBek pobrezia-aren kontra dituen helburuekin.
 - b) NBek erabaki zuen urriaren 17a izatea munduko pobrezia ezabatzeko eguna.
 - c) Pobrezia-aren inguruko herritarren hausnarketekin bat egiten du Arartekoak.
- 20. Zer dio Arartekoak EAEko pobrezia-mailaz?**
- a) Europakoaren berdina dela, gizarte-sareak ez dituelako behar guztiak asetzen.
 - b) Europakoa baino baxuagoa dela, gizarte-babeseko sareari esker.
 - c) Europakoaren azpitik dagoela, gizarte-babeseko sare ezin hobea duelako.
- 21. Zer dio Arartekoak errentaz?**
- a) 25 urtez adostasun politikoa izan arren, kudeaketa gatazkatsua izan duela beti.
 - b) Oso tresna garrantzitsua izan dela 25 urtez gizartea babesteko sarean.
 - c) 25 urtez kudeaketa txarra egin izanak oraingo krisia areagotu duela.
- 22. Arartekoaren ustez, zer esan nahi du «Inor atzean ez uztea»k?**
- a) Araupetu gabeko egoeran daudenak laguntzea, hezkuntzatik kanpo utzi badituzte.
 - b) Araupetu gabeko egoeran daudenak izan ezik, pobrezia-egoeran daudenei laguntzea.
 - c) Errenta behar duten guztiek jasotzen jarraitzea.
- 23. DBEren erreformarik onartuko luke Arartekoak?**
- a) Bai, gaur egun baino familia gehiago babes ditzan.
 - b) Bai, GKE-ek babestu ezin dituzten familiak babes ditzan.
 - c) Bai, errentaren esparru subjektiboa murrizteko.
- 24. Zer iritzi du Arartekoak errentaren prestazioaren iruzurraz?**
- a) Badagoela eta, inori eskubiderik kendu gabe, hobeto kontrolatu behar dela.
 - b) Kasu gutxi daudenez, ez dela beharrezkoa ikuskaritzak areagotzea.
 - c) Iruzur fiskalari lotutakoak baino gehiago direnez, gehiago kontrolatu behar dela.
- 25. Zer egin beharko luke Lanbidek, Arartekoaren esanetan?**
- a) Herritar guztiei prestazio-eskubidea aitortu eta diru-sarrerekin nahasmendua ekidin.
 - b) Bere eginkizunetan arduraz jokatu eta informazio argia zabaldu.
 - c) Lan-arloko edozein prozeduratan herritarren kontra egindako bidegabekeriak konpondu.
- 26. Zer deritza arartekoak NBEren goiburuaren bigarren zatia?**
- a) Administrazioek alderdien adostasuna lortu behar dutela errenta babesteko.
 - b) Administrazio batzuen konpromisorik gabe ere, pobrezia-aren kontrako borroka eraginkorra izan behar dela.
 - c) Pobrezia desagerrarazteko administrazioen eta eragileen konpromisoa eta adostasuna behar dela.

3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

XIBARTA BALEAK

Xibartek, *balaenopteridae* multzoan badaude ere, badituzte ezaugarri asko beste balea batzuekin alderatzeko. Buruan bitxi-bitxiak diren konkortxoak, eta arrazoi askorengatik oso bereziak diren bularraldeko hegats luzeak, gorputzaren luzeraren herenekoak (bost metro), azaltzen dituzte. **27** Xibarta emeki dabilen balea dugu eta ikusgarria da benetan haren gorputz gris iluna behatzea itsasotik irteten denean, hegats zuri-beltzei eraginez. Isatseko hegats beltzak, xibart bakoitzari espezifikoak zaizkion orban zuriak ditu, eta orban horiek banako bakoitzaren nortasun-agiritzat jo ditzakegu. Urperatzen direnean, hegatsaren ezaugarri horiek nabarmenki agertzen dira.

28 XVIII. eta XIX. mendeko baleazaleek ezaguna zuten jokamolde hori, eta izena ere jarri zioten: hausketa. Hausketa da xibartak egin ohi duen izugarrizko jauzia, itsas gainetik hegan egitean. **29** Airean egonez gero, itsasora berriz ere erortzen da zalaparta izugarria sorraraziz, uraren kontra gorputzak jotzen duenean. Nola konpontzen da xibarta, hain pisu itzela izanda (40.000 kg inguru), horrelako jauziak moldatzeko?

Gaur dakigunez, xibartak gero eta abiadura handiagoa hartzen du itsas azalaren azpitik dabilenean. Bat-batean, isatseko hegatsa gorantz okertzen du eta horrek, hegatzkinen erara, hegan egiteko abiadura itzela ematen dio. Dirudienez, jokabide ikusgarri horrek portaera sozialarekin du zerikusia. Hausketa egiten duen baleak, nonbait, bere ahalmena azaltzen du eme bila lehiakide dituen lagunen artean. Baleek oso hurbil egon behar dute elkar ikusteko; beraz, mekanismo hori baliagarri izango litzateke beren artean oso distantzia gutxi dagoenean. **30**

Orain dela gutxi egindako zenbait ikustalditan, harrigarriro jabetu dira xibarten jauzi horiek ugaritu egiten direla haizea dabilenean. **31** Haize-boladak handitu ahala, baleen jauziak ere gehitu egiten dira. Dirudienez, balearen erorikoak sorrarazten duen zalapartak aukera handiagoa du urutiagora zabaltzeko, haizearen eraginez. Xibartek hori jakingo balute bezala moldatu dute jokaera, eta egoera egokia agertzen denean, jauzi gehiago gauzatzen dituzte, beren mezuak ahalik eta urrutien hel daitezzen. Alabaina, badago beste hipotesi bat. Batetik, kontuan hartu behar da balea guztiak urpean dabiltzala eta ez itsas azalean; eta, bestetik, soinuak urpean baldintza egokietan oso urrutira zabal daitezkeela. Horretan oinarrituta, zoologo batzuek uste dute hausketak sortutako soinua itsas azpitik zabaldua izateko egina dela. Alegia, airearen bidez ikusmenak eta entzumenak jaso ezin ditzaketen mezuak, itsas uraren bidez garraia daitezke.

Xibartek badituzte mirespena sorrarazteko beste jokamolde berezi batzuk ere. Adibidez, jana lortzeko daukaten ehiza-teknika sofistikatuak. Azkenaldietan, itsas azpiko ikerketen bidez jakin ahal izan dugunez, zetazeo horiek kooperazio kolektiboa darabilte elikagaiak harrapatzeko. **32** Harrapakinak, artalde baten moduan, burbuilez egindako kartzelan hesiturik daudenean, xibartek oturuntzari ekiten diote. Hemen berriz ere, ugaztunen jokamolde eboluzionatua agertzen zaigu. Baina xibartek milioika urtez gorde duten sekreturik handienetarikoa duela hamarkada batzuk ezagutu genuen lehenengo aldiz.

1964. urteko apirilean, Roger Payne zoologo ospetsua Bermudako itsasoan murgildu zen, baleek beren ingurunean zituzten jokabideak aztertzeko. Zoologoa liluraturik itzuli zen abentura erakargarri hartatik. Gero azalduko zuenaren arabera, une batzuetan beste planeta batean zegoela iruditu zitzaion, eta planeta horretako izaki adimentsuak baleak ziren. Itsaspe ilun horretan, baleak etengabe mugitzen ziren, soinu eta doinu ugari igorritik. Zoologoak kanta eta doinu guztiak grabatu zituen eta gero konputagailuaren bitartez aztertu. **33** Xibartek sortutako kanten (edo elkarriketek) ordubeteko luzera zuten zenbaitetan.

Askotan, notaz nota errepikatzen zituzten kanta horiek, konpasak eta neurriak errespetatuz. Beraz, ez ziren kasualitatez igorritako soinuak, nahita eraturitakoak baizik. Balea horiek garaia heltzen zenean, ohiko itsasoa uzten zuten kanta berezi batekin, eta sei hilabete geroago toki berberera itzultzean, utzitako kanta berdinari ekiten zioten berriz, tarte horretan ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Kanta horiek, bestalde, hilez hil aldatzen zituzten egitura jakin bati jarraituz, baleek egutegi berezi bat moldaturik balute bezala. Kanta horiek aztertu ostean, 106 biteko informazioa zutela egiaztatu zen. Hori da, gutxi gorabehera, Iliada edo Odisea obra klasikoek duten informazioa. Beraz, protohizkuntza baten aurrean egon gitezke, nonbait. **34** Xibartek bidaltzen dituzten soinuen oso uhin-luzera handia daukate; horrek esan nahi du itsasoko urak ezin duela soinua irentsi, eta, beraz, balea horiek bidalitako mezuak Lurreko itsas mutur batetik beste muturrera garraia daitezkeela.

Baleek beren artean komunikatzeko itsas azpiko sare berezia eraturik daukate, antza. Hori guztia jakinda, giza adimena duen izakitzat har dezakegu balea? Baleek igortzen dituzten kantak komunikaziorako zeinuak dira ala kanta horien muinean, inprobisaziorako, sentipenerako eta poesiarako lekuri ere ba ote dago?

<gaiak.net>. Egokitua.

3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A. Azkeneko urte hauetan, xibartak jauzika ibiltzeko duen gaitasun bereziak kilikatu egin ditu ikertzaileak. Zergatik egiten dituzte hain jauzi ikusgarriak? Zein dira jokabide horien arrazoiak?
- B. Gainera, soinu horiek bertatik 15.000 kilometrorra dauden baleekin komunikatzeko baliagarri dira.
- C. Baina jauziak ugaritzea ez da gertatzen bat-bateko haize-boladak sortzen direnean, haizearen abiadura emeki handitzen denean baizik.
- D. Horiekin batera, aipatzekoak dira beheko partean dituen 22 ildoak, eta matrailezur bakoitzean agertzen diren 330 bizarrak.
- E. Egiaztatu zuen baleek igorritako soinuak oso baxuak zirela, eta horietako asko gizakiarentzat entzunezinak, baleen arteko hizkuntza guk galarazia bagenu bezala.
- F. Horrela, janaria behatzen dutenean, kide batzuk biltzen dira eta burbuila-sareak hasten dira eraten; horrekin batera, behealde eta alboetatik ekiten diote ehizakiak beldurtu eta inguratzeari.
- G. Hori gertatzen denean, gizakiok balea osoa ikusteko paregabeko aukera daukagu.
- H. Gaur egun xibartek duten arriskurik handiena, ordea, gizakion ehiza da: urtero milaka balea hiltzen dituzte Japonian eta Islandian.
- I. Horregatik, ikertzaile batzuek beste interpretazio bat eman diote.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	27	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak								

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure sailean libre geratu zen lanpostu bat. Hura betetzeko egin zen barne-promozioan hartu zenuen parte. Hautagai gutxi izan zineten eta oso gustura irten zinen proba guztietatik. Eraitza eman dizute: lanpostua bete gabe geratu da. Harrituta eta haserre zaude, eta zalantzak dituzu prozedura behar bezala egin ote duten.

Idatzi gutuna arduradunari zure harridura eta haserrea agertzeko eta prozeduraz duzun kezka azaltzeko.

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe koptatu.

EGOERA: 2015eko urtarrilaren 7an *Charlie Hebdo* aldizkari satirikoaren kontrako Parisko atentatuak eztabaida zaharra jarri du berriz ere mahai gainean: adierazpen-askatasunak mugatua ala mugarik gabekoa izan behar du?

Gaiak kezkatzen zaituenez, han eta hemen esandakoak eta idatzitakoak aztertu dituzu, eta orain zeure iritzia ematea erabaki duzu, herriko aldizkarian.

GAIA:

ADIERAZPEN ASKATASUNARI, MUGARIK?

Gizabanako guztiak dute iritzi-eta adierazpen-askatasuna, informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa. (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 19. atala).

Herrialde askotan gai honi buruzko legeak dauden arren, oso desberdinak dira herri batetik bestera eta adituek diote zaila dela esatea non dagoen askatasun horren muga.

Batzuen ustez, umorea erabilita, edozeri egin ahal zaio barre. Beste batzuek, ordea, uste dute «marra gorriak» ipini behar direla.



Eztabaida honetan ia ekidinezinak dira «zentsura», «gai tabu» eta «moral» bezalako kontzeptuak.

- Ulegarria da adierazpen-askatasunari beldur izatea? Zergatik?
- Zer deritzozu adierazpen-askatasunari mugak jartzeari? Nola arautu daitezke mugok?
- Edozer esan edo idatz daiteke demokrazia batean?
- Zer egin genezake gai honen aurrean?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «Euskarazko azpitoluak»

1.	C	2.	A	3.	D
4.	B	5.	B	6.	D
7.	B	8.	D	9.	B
10.	C	11.	D	12.	B
13.	C	14.	D	15.	A
16.	C	17.	A	18.	C

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Arartekoa, pobreziaren kontrako egunean»

19.	A	20.	B	21.	B
22.	C	23.	A	24.	A
25.	B	26.	C		

- **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- **Irakurgaia:** «Xibarta baleak»

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	D	A	G	I	C	F	E	B

Soberakoa	H
-----------	---